

KULTUR ETXEKO ARAUTEGIA

AURKIBIDEA

1. Artikulua.- DEITURA	3
2. Artikulua.- IZAERA	3
3. Artikulua.- XEDEA	3
4. Artikulua.- TITULARGOA	3
5. Artikula.- FUNTZIONAMENDUA	4
6. Artikulua.- ORDUTEGIA ETA EGUTEGIA	5
7. Artikulua.- ERABILTZAILEAK	5
8. Artikulua.- GUNEEN LAGAPENAK	6
9. Artikulua.- KULTUR ETXEKO ZERBITZUAK	8
10. Artikulua.- AZKEN XEDAPENAK	13

1. Artikulua.- DEITURA

2. Artikulua.- IZAERA

Kultur Etxea Udal-Zentro Publikoa da, nagusiki Kultur iharduerak garatzera, elkarbizitza bultzatzera eta musika, teatroa, zinema, plastika, jolasa, artea eta literaturaren arloak garatzera xedatua, inoiz edo behin lehen adierazitako iharduerez bestelakoetara xedatu ahal izango delarik.

3. Artikulua.- XEDEA

Lasarte-Oriako bizilagunen gizarte eta kultur egoera hiru arlootan hobetzera zuzenduriko zerbitzu iraunkor eta bermatua emango duen Udal-Ondarea sortzea, hots:

- 1) Komunikazioa, informazioa, ikaskuntza, astialdia eta sormenaren arloko beharrak betetzera zuzenduriko banakako edo taldekako iharduerak burutzea.
- 2) Udalaren nahiz Gizarte-Kultur Erakundeen iharduerak kultur unitate batetan burutzeko beharrezko diren azpiegitura eta baliabideak ematea.
- 3) Azpiegiturarekin bat datorkeen programaketa lortzea, Lasarte-Oria kultur zabalkundeko zentro gisa kokatuko duena.

4. Artikulua.- TITULARGOA

Kultur Etxearen gobernamentua eta instalazio honen funtzionamenduaren arauketa Lasarte-Oriako Udalari dagokio, Kultura Departamentuaren bitartez, Erregimen Lokaleko Legearen eta une bakoitzean aplikagarriak diren Erregimen Lokaleko Arauekin bat.

Betekizunak:

- * Kultur Etxearen iharduketa-ildoak onestea.
- * Alkatetzari urteko funtzionamenduko Aurrekontua proposatzea.
- * Urteko memoria onestea.
- * Kultur Etxeko egiturak eta baliabideak erabiltzeko baldintza teknikoak eta ekonomikoak finkatzea.
- * Kultur Etxeko baliabideen erabilera egokia fiskalizatzea.

5. Artikula.- FUNTZIONAMENDUA

Erizpide orokorrak:

- * Lasarte-Oriako Kultur Etxean bi eratako zerbitzuak daude: Udal-zerbitzu egonkorrak, beren zuzeneko arduradunekin (Musika-Kontserbatorioa, Liburutegia eta Zinea); eta zerbitzu ez-egonkorrak edo eskaintza pribatutik abiatutakoak, hau da, erabilerarako arauak onartu eta ezarritako baldintzak bete ondoren Kultur Etxea erabil dezaketenak.
- * Udal-zerbitzuak Kultura Batzordeko Lehendakariaren eta Zerbitzuko arduradunaren ardurapean daude.
- * Gainerantzeko kasuetan, bitartekoen eta aretoen erabilera uzteko, ezinbesteko baldintza izango da Kultur Etxean horretarako eskuragarri dagoen eskaera-orria (1. Eranskina) beteta ekartzea eta, hala balegokio, erabilera horregatik ordaindu beharreko tasak ordaindurik dituela ziurtatuko duen agiri kreditagarria atxekitzea.
- * Funtzionamenduan dauden zerbitzu guztiek arloko arduradun bat eduki behar dute, eta hauek materialaren kontrolaren eta instalazioen erabileraren ardura edukiko dute.
- * Aretoen edo materialaren erabilerarako lagapen guztiak Kultura Batzordeko Lehendakariari jakineraziko zaizkio.
- * Aretoen lagapenak beti Zuzendaritzatik egikarituko dira Kultura Batzordeko Lehendakariak bere oneritzia eman ondoren, beren garapenerako bitarteko materiala emateko xedeaz eta inoiz ez elkartearen egoitza gisa.
- * Zentzu honetan, zerbitzu balioaniztun gisa, eskuragarri dauden guneen dinamika pribatizatzaileak debekaturik egongo dira, ziurtatuz ezen sortutako iharduerek, beren helburuen arauera, martxan jartzea egokitzat jotzen diren ekimenen garapena zentzuzki beharrezkoa dena baino areago ez dutela hipotekatuko.
- * Kultur Etxea, bere helburuekin partzialki edo globalki bat datozen edo bere xedeak hobeki betetzeko baliabide material, ekonomiko edo pertsonalen kaptazioa suposatzen duten beste Organismo, Elkarte, Entitate eta Erakundeekin bere lana koordinatzeko gaiturik dago.
- * Kultur Etxea erabiltzeko erregimen ekonomikoa, Udalak baimendutako dohako erabileren kasuan salbu, indarrean dauden tarifei egokituko zaie, beroriek dagokien Ordenantza Fiskalean (2. Eranskina) isladatu beharko direlarik.
- * Lasarte-Oriako Udalak Erakunde edo Entitateekin kontratuak edo hitzarmenak sinatu ahal izango ditu instalazioen erabilera jarrai eta/edo luzeak (hiruhilabetealdia, sei hilabetealdia, urtealdia edo denboraldia) arautzeko.

- * Areto baten lagapenak ez du bere erabilerarako eskusibotasuna suposatzen, izaera ez-finkoa du baizik.
- * Kultura Batzordeko Lehendakariari dagokio aretoak erabiltzeko egutegia burutzea, Aretoak eskatuz jasotako eskaeren eta Kultur Etxerako ezarritako programaketaren arauera.
- * Entitateek edo partikularrek erabiltzeko lagapenak, instalazioak Udalak antolatu edo bultzatutako iharduerek erabiltzearen menpe egongo dira beti.

6. Artikulua.- ORDUTEGIA ETA EGUTEGIA

Kultur Etxea publikoak erabiltzeko ordutegia, Astelehenetik Ostiralera 9:00etatik 14:30etara eta 16:30etatik 21:30etara eta Larunbatetan 9:00etatik 13:30etara izango da.

Ordutegi honetatik kanpora programatutako iharduerek trataera berezia izango dute: Zinea, Erakusketak, Hitzaldiak, Teatroa, Musika, etab.

7. Artikulua.- ERABILTZAILEAK

Kultur Etxearen erabiltzaileak, bertan edo berekin elkarlanean sortzen diren era guztietako iharduera edo zerbitzuetan banaka edo taldeka parte hartzen duten Lasarte-Oriako herritar guztiak dira.

Erabiltzaile guztiek Kultur Etxeko instalazio eta baliabideen erabilera onaz arduratzeko eskubidea eta betebeharra dute, espresuki debekaturik geratuz honako ekintza hauek:

- * Taldeko osakideentzat nahiz Kultur Etxean dauden gainerantzeko pertsonentzat edo Kultur Etxeko ondasun eta egiturentzat arrisku fisikoa suposa dezaketen iharduerak burutzea.
- * Kultur Etxeko gune ezberdinetan edozein eratako kartel edo iragarkiak eranstea edo ipintzea, Iragarki-Tauletan izan ezik, horretarako dagokion baimena eskatu beharko delarik.
- * Kultur Etxeko areto guztietan erretzea, honako salbuespen hauek eginez: Liburutegiko atsedengunea, Kafetegia eta Hall nagusia.
- * Edozein eratako janariak edo edariak jatea edo edatea, horretarako xedaturiko toki bakarrean ez bada (Ambigua, Harreman Aretoa).
- * Kultur Etxetik tresneria edo altzariak mugitzea horretarako baimen espresurik gabe.

* Beste iharduerak oztopa ditzaketen iharduerak burutzea eta, bereziki, itxarotera edo atsedeen hartzera xedaturik ez dauden tokietan (korridoreak, etab.) egotea, edo leku publikoetarako egokiak ez diren iharduerak burutzea (garraisi egitea, korrika egitea, etab.)

* Igongailua era desegokian erabiltzea, benetan behar duenari bere erabilera egokia oztopatuz.

Erabiltzaileek, azken finean, gizalegez eta era ordenatuan portatu behar dute, Lasarte-Oriako Udalak beretzat erreserbatzen duen erabilera honetako instalazio publikoekin bat datorren portaera zaintzen ez duen pertsona edo pertsonak erazartzeko edo are Kultur Etxetik botatzeko eskubidea.

8. Artikulua.- GUNEEN LAGAPENAK

Kultur Etxeko edozein gune erabiltzeko ezinbesteko baldintza da dagokion eskaera egitea eta, hala balegokio, Tasen ordainketaren agiri kreditagarria atxekitzea.

Aretoaren erabilera onaz arduratuko den pertsona baten kreditazioa galdatuko da, berori iharduera amaitutakoan aretoa lagapenaren unean zegoen egoera berean egoteaz arduratuko delarik.

Udalak, bere Kultura Batzordearen bitartez, beretzat erreserbatzen du alde aurretik onetsitako iharduera bat eteneratzeko eskubidea baldin eta berau baimendutakoarekin bat ez datorrela sinestezgarriki egiaztatzen bada.

Iharduerari hasiera eman aurretik eta berau garatzen den bitartean amaitu arte, antolatzaileek alde aurretik izendatutako pertsona Kultur Etxean egongo da eta instalazioa eta bere eskueran ezarritako materiala egokiro erabiltzeaz arduratuko da.

Antolatzaileek Polizia eta Ikuskizunei buruzko indarreango Arauek ezartzen dutenera egokitu beharko dute une oroz. Kultur Etxearen Zuzendaritza haiek betetzeaz arduratuko da.

Baimendutako erabilera amaitu ondoren, antolatzailearen eskueran jarritako materialaren erabilera desegokiari egotz dakioken apurketaren bat agertu dela konstatatuko balitz, Kultur Etxeko Zuzendariak berorien akta altxako du antolatzailearekin ados jarrita. Udalak haien gastuen balioa zenbatekotu ondoren, antolatzailea obligaturik geratuko da Udalarari zenbatekoa mederatzera, jakinerazten zaion egunetik kontatzen hasi eta hilabete baino lehen.

Baldin eta Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik iharduera etenerazi egin beharko balitz, Udala ez da arduratuko horretatik erator daitezkeen kalteez.

Iharduerari hasiera eman ondoren bere etendura Kultur Etxeko sistemetako akatsek eragin dutela egiaztatuko balitz, Udalak, alde aurretik dagozkion tramiteak

burutu ondoren, antolatzaileari ordaindu egingo dizkio honek Kultur Etxearen erabileragatiko Tasa eta Eskubideen kontzeptuan egindako dirusarreraren zenbatekoa, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik eduki gabe.

Lasarte-Oriako Udala ez da arduratuko ihardueraren antolatzaileek eskueran eduki dezaketen eta/edo bertaratutako ikus-entzulegoaren jabetzakoa den materialaren lapurreta edo galeraz.

Erabiltzaileen kontura izango da:

- * Edozein Tasa, kontribuzio edo zergaren ordainketa.
- * Egile-Eskubideen ordainketa, hala dagokionean.
- * Baimen eta zilegidura administratiboak.
- * Iharduera burutzeko beharrezko diren elementuen muntaketa eta desmuntaketa bere antolaketa Udalarekiko arrotz denean, nolahi ere udal-langilegoak une bakoitzean emandako oharrak jarraitu beharko dituztelarik.

Orokorki, entitateek edo instalazioen erabiltzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

Entitate antolatzaile orok, eska dakizkiokeen arlo zibil, penal, administratibo, laboral edo tributarioko edo beste edozein eratako erantzunkizunak bere gain hartuko ditu eta bere kargu eskusibora hartuko ditu bere erantzunkizunetik eratorritako kalte-galeren ordainketa, Udalak inolako ordaindu beharrik eduki gabe.

Instalazioak erabiltzeko eskaerak gutxienez 20 egun aurretik eta Erregistru Ofizialaren bitartez aurkeztu beharko dira.

Udaleko zerbitzu teknikoek edozein unetan ikuskatu ahal izango dituzte iharduera bat burutzeko instalazio osagarrien muntatze eta desmuntatze lan guztiak eta bakoitza, entitate antolatzaileek onartu eta bete egin beharko dituztelarik horretarako egiten zaizkien oharrak eta iradokizunak.

9. Artikulua.- KULTUR ETXEKO ZERBITZUAK

Udal-Zerbitzu Iraunkorrak.

Kultur Etxean emango diren udal-zerbitzu iraunkorretariko bakoitza bere arduradunak antolatuko du, beroni dagokiokeelarik urteko Programaketa prestatzea, zerbitzuaren iharduera bultzatzea eta hiruhilabetero eta/edo urtero balantzearen kontu ematea. Zerbitzu hauetako langilegoa Zuzendari Gerentearen ardurapean egongo da.

Liburutegia

Zerbitzu hau erabiltzeko ezinbesteko baldintza izango da gutxienez 7 urteko adina izatea.

7 urtetik beherakoek, pertsona arduradun batek lagundurik badatoz erabili ahal izango dute Liburutegia.

Liburutegiko areto ezberdinetan, Kultur Etxeko arautegi orokorraz gain, honako hauek errespetatu beharko dira:

- * Tippexa, guraizeak edo fondo bibliografikoak narria ditzakeen beste edozein objektu ez erabiltzea.
- * Eskolako lanik ez egitea, kontsultatu beharrak ezinbestekoa egiten duen kasuetan izan ezik.
- * Ormirudiak, edo gainerako irakurleak molesta ditzakeen lanak ez egitea.
- * Isiltasuna eta irakurtzeko toki batetan behar den ordena mantentzea.
- * Aldizkari, egunkari edo libururik ez azpimarratzea, markatzea edo narriatzea.

Bi areto ezberdin daude: Helduena eta haurrena, sail bakoitzerako egokitutako bibliografia eta guneekin.

Haurren Aretoa 7 eta 11 urte bitarteko gazteek erabili ahal izango dute eta Helduen Aretoa 14 urtetik gorakoek.

Mailegua.

Zerbitzu hau erabiltzeko ezinbesteko baldintza izango da bazkide izatea, horretarako beharrezkoa delarik gutxienez 7 urteko adina izatea eta eskaerarekin batera karnet tamainako argazkia eta 100 pezeta entregatzea.

Aldi berean gehienez 2 liburu mailegatu ahal izango dira.

- * Mailegurako epeak honako hauek dira:
 - * Gutxienezkoa, egun 1.
 - * Gehienezkoa, 15 egun (4 aldiz arte berriztatu ahal izango delarik).
- * Maileguaren epea iragandakoan liburua entregatu egin beharko da, beste gainerantzean bazkideari lehen abisu bat bidaliko zaio eta hiru hilabete iragandakoan bigarren abisu bat.

- * Zenbait liburu ezin dira mailegatu, hauek dagokien identifikazioa daramatelarik azalean.
- * Liburuak narriatu, markatu edo galduz gero, haien ordeztu beste berdinak jarri beharko dira.
- * Irakurleek Liburutegiko liburuetan nabaritzen dituzten anomaliak jakinerazteko eskubidea eta betebeharra dute.

Erakusketa-Areto

Beren obra Kultur Etxean erakusteko interesaturik dauden pertsonak idatziz eskatu beharko dute, eskatzailearen datu osoez gain harremanetarako telefonoa, curriculuma, obraren argazkizko erakuskari bat eta bere neurriak eta gutxigorabeherako pisua adieraziz.

Gune honen lagapenaren onspena Kultura Batzordeko Lehendakariari dagokio, bere helburuak aztertu, gunearen lagagarritasuna, kultur programaketarekiko egokitasuna eta erakusketen egutegia aztertu ondoren.

Gunea erabiltzeko denbora 10 egunekoa izango da, ostiraletik igandera, Kultura Departamentuak beretzat erreserbatuz programaketaren interesagatik edo erakusketagatik beragatik bere erabilera malgutzeko edo luzatzeko ahalmena.

Muntatze eta desmuntatze lanetarako egun bat edukiko da Erakusketaren hasieran eta beste egun bat bukaeran.

Lan honetarako, Kultur Etxeak pertsona bat jarriko du arlo teknikoan laguntzeko.

Ezinbesteko baldintza izango da pertson arduraduna jagolaritza-zerbitzuaz arduratzea publikorako irekitako orduetan zehar, Kultur Etxeko arautegia betetzeaz arduratuko delarik.

Erakusketaren publizitatea eta eskuprograma Kultur Etxeak burutuko ditu ezartzen dituen zabalkunde-bideen arauera.

Ikusgai jarritako materialaren gainean Kultur Etxeak aseguru bat egingo du, beraietan gerta daitezkeen anomaliak 10 eguneko eta gehienez ere 1.000.000 pezetako zenbatekoaz estaliko dituena.

Erakusketa-aretoaren lagapena dagokion tasa ordaintzearen baldintzapean egongo da, eskaera baimentzeko unean ordainketa konstatatu egin beharko delarik. Lasarte-Orian erroldatuentzat hoberi bat egongo da aipatu lagapen-tasan.

Ikusgai jarritako obra, publikorako salmentan egon ahal izango da, baina aretoan geratu beharko du hitzartutako egunera arte.

Kultur Ondarea sortzearren, Kultur Etxeak obra bat hartuko du dohainik. Horretarako eta ohizko prozedura gisa, Kultura Departamentuak, egileak egoki deritzen 3 obraren artean bat hautatuko du, edo bestela, ikusgai jarritako obraren salmentagatik jasotako diruaren %10a ordainduko dio Lasarte-Oriako Udalari.

Kultur Etxeak beretzat erreserbatzen du programaketaren beharregatik erakusketa baten egunak atzeratu, etenerazi edo aldatzeko eskubidea, artistari Erakusketa burutzeko egun egokiak emanaz.

Garraioa eta muntatze eta desmuntatze lanak artistaren kontura izango idra.

Tailerrak

Hiru iharduera-arlo ezberdintzen dira: Argazkigintza, Bideogintza eta Arte Plastikoak.

Argazkigintza Arloa

* Kultur Etxeko Zuzendaritzak ezarriko du jarraitu beharreko ihardueraren programa (ikastaroak, erabilera-orduak, etab.). Zerbitzu hau erabili ahal izateko ezinbesteko baldintza da zerbitzuko bazkide izatea.

Honako hauek izan daitezke bazkide:

* Kultur Etxeak antolatutako ikastaroetan parte hartzen dutenak, hauek bazkide-karneta jasoko dutelarik eta bere balio-epaia ikastaroa amaitutakoan iraungiko delarik.

* Bazkide izatea eskatzen duten guztiak, hiruhilabeteko, sei hilabeteko edo urteko kuota ordaindu ondoren.

* Bazkideak Argazkigintza Aretoko materialaren arduradun izango dira eta beren kontura izango dira kaltetutako materialaren konponketak eta birjarpenak edo gertatutako hondaketak.

* Erabilerarako ordutegi/egutegia Kultura Departamentuak prestatuko du, gunearen erabilgarritasuna eta bazkide kopurua kontutan hartuta.

Eskaeren arauera gehienezko bazkide kopurua mugatu egin ahal izango da eta, edozein kasutan ere, gunea aldi berean bost lagunek baino gehiagok ezingo dute erabili.

Bideogintza Arloa

Grabazio zein Edizio materiala erabili ahal izateko, ezinbesteko baldintza izango da Bazkide-Karneta eskuratzeaz gain Kultur Etxean arlo honetako ikastaroren bat egina izatea edo beste erakunderen batetan egin duela kreditatzea.

Honako hauek izan daitezke bazkide:

- * Kultur Etxeak antolatutako ikastaroetan parte hartzen dutenak, hauek bazkide-karneta jasoko dutelarik eta bere balio-epea ikastaroa amaitutakoan iraungiko delarik.
- * Bazkide izatea eskatzen duten guztiak, hilabeteko, hiruhilabeteko edo sei hilabeteko kuota ordaindu ondoren.
- * Gune hau Kultur Etxeko ikastaroan matrikulatu ez direnek erabili ahal izateko, beharrezkoa izango da 15 egun aurretik lan-proiektu bat aurkeztea, bertan, datu pertsonalak eta arloko ikastaroren bat burutu izanaren kreditagiri batez gain, ondorengo datuak agertuko direlarik:
 - * Materiala erabiliko den denbora.
 - * Bazkide kopurua.
 - * Laneko proposamena.

Grabaketa-materiala Kultur Etxetik kanpo erabili ahal izango da, horretarako erabakitzen den fidantza jarritz.

Gainerako materiala Kultur Etxeko Arautegi Orokorren menpe egongo da eta beraz ezingo da bere tokitik kanpora erabili.

Materialaz arduratuko den pertsona batek berori erabili aurretik eta ondoren ikuskatu egingo du, erabiltzailearen ardurapekoak izango direlarik gerta litezkeen hondaketak, Kultur Etxeko Arautegi Orokorra eta bereziki 8.7 artikulua aplikatuz.

Arte Plastikoen Arloa

Bere erabilera, Kultur Etxeak arlo honen barruan emango dituen ikastaro ezberdinek definituko dute: Pintura, Zeramika, Tapiza, Eskulanak, etab.

Gune hau erabili ahal izateko ezinbesteko baldintza da zerbitzuko bazkide izatea.

Honako hauek izan daitezke bazkide:

- * Kultur Etxeak antolatutako ikastaroetan parte hartzen dutenak, hauek bazkide-karneta jasoko dutelarik eta bere balio-epea ikastaroa amaitutakoan iraungiko delarik.
- * Bazkide izatea eskatzen duten guztiak, hilabeteko, hiruhilabeteko edo sei hilabeteko kuota ordaindu ondoren.

* Bazkideak Areto honetako materialaren arduradun izango dira eta beren kontura izango dira materialean gerta litezkeen hondaketak edo anomaliak.

* Erabilerarako ordutegi/egutegia Kultura Departamentuak prestatuko du, gunearen erabilgarritasuna eta bazkide kopurua kontutan hartuta.

10. Artikulua.- AZKEN XEDAPENAK

Honako Arau hauetan aurrikusi gabekoan, Lasarte-Oriako Udalak ezarritakoak aginduko du.